# Sagardogintza, Ternuatik Astigarragara

Kronika - Erredakzioa 2021-02-13 00:00



Udalbiltzak kudeatzen duen Lurgida APP turistikoak oinez, bizikletaz edota autoz egin daitezkeen hainbat ibilbide gomendatzen ditu. Horietatik azpimarratzekoa den bat da Sagardogintza ardatz duena. Sagardogintzaren inguruko ibilbidearen bitartez, Euskal Herrian hain errotua dagoen edari honen historia aztertzea da asmoa.

XVI. mendetik aurrera aurki ditzakegu Gipuzkoako herrietan sagardoa egin eta saltzeko araudia zehazten duten lehen idatziak. Horrez gain, nabarmena da euskal marinelek eta sagardoak zuten harremana; bale-arrantzan Ternuara joaten ziren marinelek sagardoa eramaten baitzuten upeletan, eskorbutoa



ondorioz, sagastien azalera murriztuz joan zen, harik eta ia desagertu zen arte. Gaur egungo sagardogintza modernoa, 60. hamarkadatik aurrera hasi zen garatzen.

Egun Astigarraga da, dudarik gabe, Sagardoaren Hiriburua; duen sagardotegi kontzentrazio handiaren eraginez. Gaindegia atariaren 2019ko datuen arabera, 6.532 biztanle ditu herriak, eta 21 sagardotegi daude bertan erregistratuta. Ondorioz, udalerrian sagardotegi bat dago 318 biztanleko. Horrez gain, urtero sagardo denboraldiari hasiera ofiziala ematen zaio Astigarragan urtearen hasieran, lehenbiziko txotx erritua eginez; eta Sagar Uzta izeneko jaialdia ospatzen dute iraila bukaeran, dolareetako lanari hasiera emateko.

Datozen hilabeteotan, astigarragan sagardogintzaren inguruan aurki daitezkeen hainbat ibilbide eta puntu interesgarri gomendatuko ditu Udalbiltzak tarte honetan.

**ASTIGARRAGAKO UDALAK BABESTUTAKO ATALA**

Astigarragako Udala

[Gizartea](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez Kronikalari!

Erantzun













## Ikusienak



[Gaurtik ostiralera arte zabalik, udaleku irekietan zein kirol udalekuetan izena emateko epea](#)

Kronika - Erredakzioa

api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Garaipena lortu zuen atzo Hernanik El Rion, eta finalerdietarako sailkatu da](#)

Kronika - Erredakzioa

api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Juul literatur hauteskundeetan aukeratua, Alai Zubimendiren lana](#)

Kronika - Erredakzioa

api 26, 00:00 [Hernani](#)



[Ezustekoa Zinkoenean, gaur goizean](#)

Kronika - Erredakzioa

api 24 [Hernani](#)



[Langileen Nazioarteko Eguna dela eta, mobilizazioak antolatu dira larunbaterako](#)

Kronika - Erredakzioa

api 27, 00:00 [Urumea](#)



[Aho zabalik, larunbateko ikuskizunean](#)

Kronika - Erredakzioa

api 26, 00:00 [Astigarraga](#)

## Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)
Larramendi kalea 11, Hernani
Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@kronika.eus

CC BY SA

*Codesyntaxek garatua*

HONI BURUZ LEGE OHARRA PUBLIZITATEA ARAUAK HARREMANETARAKO RSS

Gipuzkoako Foru Aldundia - Hernaniko Udala - Astigarragako Udala - Ereñotzuko Auzo Udala - GOIZUETAKO UDALA - ARANOKO UDALA

TOKIKOM

Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA AIKOR ANBOTO ATARIA BALEIKE AIURRI ERRAN EUSKALERRIA IRRATIA GOIENA GUAIXE HIRUKA
KARKARA MAXIXATZEN PLAENTXIA ALEA 28 KANALA ANTXETA BARREN ERLO TELEBISTA GEURIA GOIERRI TELEBISTA
KRONIKA MAILOPE NOAUA DEUSTUALDEA PREST TXINTXARRI URIOLA UZTARRIA AMEZTI OIZMENDI TELEBISTA

Gurean Plazanbazan Ttap

Tokikom publizitatea